

Udal Gobernuak area tentsionatuak izendatuak izateko eskaera formala egin dezan, Lasarte-Oriako EHBildu Udal taldeak hurrengo mozioa aurkezten du:

2023ko abenduaren 14an Jaurlaritzaren Etxebizitzaren Behatokiak argitaratutako txostenean datu objektiboekin zehaztu zen dagoeneko *Lasarte-Oriak* betetzen duela area tentsionatu gisa izendatua izateko baldintzak.

Txostenarekin batera protokolo bat argitaratu zen, area tentsionatuak izendatzeko Jaurlaritzak eta Udalek era koordinatuan egin beharreko pausuak zehazten dituena. Protokoloaren arabera, orain *Lasarte-Oriako* Udal Gobernuak area tentsionatua izendatua izateko eskaera formala egin behar du, hainbat agiri eginez eta Jaurlaritzari bidaliz.

Hori dela eta, EH Bilduko udal taldeak hurrengo mozioa aurkezten du:

Mozioa

Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio 4 hilabeteko gehienezko epean igorri diezaiola Jaurlaritzari area tentsionatuak izendatuak izateko eskaera formala, gutxienez hurrengo agiriekin batera:

- 1.- Memoria justifikatiboa, zeinetan etxebizitza-eskaintzaren eta -prezioaren egoera eta bilakaera adieraziko den, datu objektiboen bidez, area tentsionatu gisa izendatuak izateko Jaurlaritzak jada zehaztutako eremuaren mugaketarekin batera.
- 2.- Ekintza-plan espezifikoa, zeinetan Jaurlaritzak jada zehaztutako eremu tentsionatuetan etxebizitzaren eskaintza eta eskaria orekatzeko neurri zehatzak zehaztuko diren, baita horiek gauzatzeko kronograma bat ere, 3 urtera begira.

Lasarte-Orian 2024 urtarrilaren 15ean